# TXANOGORRITXU

USTIAPEN PEDAGOGIKOAK AMA ESKOLAN

GAITASUNAK (Compétences)

## I. S'APPROPRIER LE LANGAGE

***COMPRENDRE***

Grâce à la répétition de l'histoire adaptée à leur âge, les élèves parviennent à comprendre le récit et peuvent le raconter à leur tour.

***PROGRESSER VERS LA MAITRISE DE LA LANGUE BASQUE***

- Par des exercices adaptés, les élèves mémorisent et nomment les objets, personnages et actions de l'histoire.
- En manipulant la langue, en écoutant le texte lu, les enfants s'approprient les règles qui régissent la structure de la phrase ; ils apprennent l'ordre habituel des mots en basque.

## II. DÉCOUVRIR L'ÉCRIT

***1 - SE FAMILIARISER AVEC L'ÉCRIT***

**Découvrir les supports de l'écrit**

Les enfants observent et manipulent le livre, commencent à se repérer dans une page, sur la couverture.

**Découvrir la langue écrite.**

Ils rencontrent une œuvre du patrimoine littéraire et s'en imprègnent.

Après les lectures,

- les enfants reformulent ce qu'ils ont compris ;
- ils sont encouragés à mémoriser des phrases ou de courts extraits du texte.

**Contribuer à l'écriture de textes**

Les enfants sont mis en situation de contribuer à l'écriture de texte. Ils parviennent à transformer un énoncé oral spontané en un texte que l'adulte écrira sous leur dictée.

## III. DEVENIR ÉLÈVE

- Les enfants apprennent à rester attentifs de plus en plus longtemps.
- Ils s'engagent dans un projet ou une activité, en faisant appel à leurs propres ressources ; ils font ainsi l'expérience de l'autonomie, de l'effort et de la persévérance.

## V. DÉCOUVRIR LE MONDE

***LES FORMES ET LES GRANDEURS***

Progressivement, ils parviennent à distinguer plusieurs critères, à comparer et à classer selon la forme, la taille.

Ils tracent le carré.

## VI. PERCEVOIR, SENTIR, IMAGINER, CRÉER

Sensibilisation artistique par des activités visuelles et tactiles autour des formes, des couleurs, qui accroissent les possibilités sensorielles de l'enfant.

Elles sollicitent son imagination et enrichissent ses connaissances et ses capacités d'expression.

Elles sont l'occasion de familiariser les enfants à une forme d'expression artistique (cubisme), une technique artistique (collage).

Les enfants éprouvent des émotions et acquièrent des premiers repères dans l'univers de la création.

Ils réalisent une composition, adaptent leurs gestes à des contraintes matérielles.

**LUZAMENA**

- Bertze ipuin batetik abiatuz, azken urteko haurrei proposatzen zaie orrialdez orrialde pertsonaien eta ipuinaren elementu nagusien ordezkatzea, formak erabiliz, eta beraz beste liburu baten sortzea.

## PROIEKTUA :

## HAURREK TXANOGORRITXUREN LIBURU BAT SORTUKO DUTE

### 1- Aitzin jarduerak

- Koloreak landu.
- Formak bereizi : lauki karratua ezagutu, marraztu, eraiki.

### 2- *Txanogorritxu* ipuinari buruzko liburu batzuen ezagutza egin

***Beharrez, irakasleak haien itzulpena eginen du.***

| | |
|---|---|
| Le ***Petit Chaperon rouge*** / d'après les frères Grimm ; ill. Anna-Laura Cantone ; trad. de l'italien Dominique Mathieu. - Paris : Flammarion, 2001. |  |
| Le Petit Chaperon rouge / Jean Claverie. - Mijade, 2009. |   |
| Le ***Petit Chaperon rouge*** / ill. de Jack Kent. - Paris : Sorbier, 1983. |   |
| Le ***petit chaperon rouge*** / un conte des Frères Grimm ; ill. par Lisbeth Zwerger et trad. de Michelle Nickly. - Gossau, Zurich (Suisse) : Nord-Sud, 2003. |  |
| Le petit chaperon rouge : Collection privée / Nadja. - Cornélius, 2005 |   |
| **Le petit *chaperon rouge*** / Rascal. - Pastel, 2002 | |
| Le petit chaperon rouge a des soucis / Anne-Sophie de Monsabert. - Albin Michel-Jeunesse, 2004 | |
| Le ***Petit chaperon vert*** / Grégoire Solotareff, illustrations de Nadja. - Paris : Ecole des loisirs, 1991. | |

### 3- Leo Lionniren « Petit bleu petit jaune » liburua irakur.

**PROIEKTUAREN AURKEZPENA**

Irakasleak haurrei adiarazten die « Petit bleu Petit jaune » bezalako liburua eginen dutela « Txanogorritxu » ipuinetik abiatuz.
Haurrek gustukoa duten liburu bat hautatzen dute eredu gisa.

**JARDUERA**

1- Proiektuaren araudia finkatu :

- Adieraziko dituzten gauza guziak karratuak izanen dira.
- Lauki karratuek neurri desberdinak ukaiten ahalko dituzte.
- Gauza bakoitzarentzat kolore bat hautatu behar da.

1- Eztabaidak sortu liburuaren orrialdeei so eginez ; adiarazi beharko diren gauza eta pertsonaia inportanteenak zerrendatu (afixa taula bat sortu eta izenak idatzi irudien ondoan). Bakoitzarentzat lauki karratuaren kolorea eta neurria hautatu (ttipi, ertain edo handi).

2- Lan tailer bat antolatu formen bereizteko : lauki karratuak bakarrik atxiki.
Ondotik handitasunaren arabera bereizi (plastikozko formekin hobe).

3- Haurrak binaka edo hirunaka bil. Talde bakoitzari liburuaren orri bat (fotokopia) ematen zaio zozkaturik. Agindua eman : “Zuen orrian agertzen diren gauzak eta pertsonaiak paperezko karratuak bihurtuko dituzue eta bigarren orri xuri honetan kolatuko.” “ Kasu emazue afixan finkatu ditugun arauei !”.
Hiru posibilitate :
edo plastikozko karratuak hartu ; ingurua marraztu ; moztu eta margotu
edo paper orriak kolorez tindatu eta horietan lauki karratuak sortu
edo kolorezko orrietan lauki karratuak sortu…
Haurrek diktatzen dioten testua idazten du irakasleak.
Estalkia sortzen duen taldeak titulua idazten du.

4- Talde handian, haurrek sortu dituzten orriak ordenatzen dira, xoko batean zifra idazten da eta liburua sortzen, abiapuntuko liburuak lagundurik eta zenbaki ordinalak landuz.

5- Irakasleak liburu osoa irakurtzen du.
Haurrek taldeka orriz orri kontatzen dute, erranaldi zuzenak gogoan harturik.
Haur batek liburu osoa kontatzen du.

**HELBURUAK**

- Literaturako proiektu batean sartu.
- Proiektuaren mugak eta arauak ulertu.
- Jadanik landua izan dena gogoratu : formen izenak, koloreenak, neurrienak.
- Liburua eskuztatu. Liburu batean informazioak xerkatu.
- Mintzatzera ausartu, eztabaidan parte hartu.
- Hiztegi berezia gogoan hartu.
- Asmaketan sartu eta ahoz adiarazi.
- Oinarrizko informazioak bildu eta zerrenda batean adiarazi.
- Erreferente bat sortu.
- Multzo bateko gauzak bereizi, sailkatu.
- Agindu bati behatu.
- Proiektu batean aktiboki parte hartu, talde batean bakoitza bere lanari lotu bertzeak errespetatuz.
- Obra kolektibo baten zati baten sortzaile izan.
- Forma baten ezaugarriei ohartu (lauki karratua).
- Teknika desberdinetan trebatu.
- Erranaldi zuzenak eraiki, irakasleak idatz ditzan.
- Zenbakuntzan, erlazio ordinala landu.
- Zifren idazkera lortu.
- Obra kolektibo bat sortu.
- Liburu baten kontalaria izan.

**EBALUAKETA**

- Haurrak, jende helduak irakurtzen duen istorioa ulertzen du.
- Haurrak aginduak ulertzen ditu.
- Haurrak hiztegia gogoan hartu du : liburukoa/koloreen izenak.
- Haurrak erranaldi osoak egiten ditu.
- Haurrak lauki karratua marrazten du.
- Haurrak besteak errespetatzen ditu ; taldeko arauak errespetatzen ditu.
- Haurrak eskolako jardueretan parte hartzen du eta egintza sinpleak betetzen ditu.

**ONDORIOAK**

- **Bigarren zikloko proiektua :** lauki karratuen eraikitzeko, ikasleek beharko dute erregela erabili eta neurri zehatzak hartu.

- **Hirugarren zikloko proiektua** :

1-Hizkuntzaren ardatza : "Txanogorritxu" istorioa forma karratuetan den liburuxka aurkeztu titulua eman gabe eta testurik gabe ; orrialdez orrialde erakutsi eta ondotik :
- eztabaidak sortu : bakoitzak erran behar du zer ikusi duen, zeri pentsarazten dion.
- taldeka, irudietatik abiatuz, istorio bat asmatu, idatzi eta bertze taldeei irakurri.
- Azkenik irakasleak "Txanogorritxu" istorioa irakurtzen du, lehen eta bigarren zikloko haurrek sortu duten liburua erakutsiz.

2- Sorkuntzaren ardatza : Hizkuntza – geometria – neurriak - sorkuntza
Liburu bat sortu baina beste ipuin batetik abiatuz (irakasleak edo haurrek hautaturik)
Ama eskolako jarduerak berriz hartu eta egokitu. Ziklo horretan geometria gaian sartzen da forma desberdinak eraikiz, tresna desberdinak erabiliz (erregela, eskuaira, konpasa).

| HIZKUNTZA – ULERMENA |
|---|
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. |
| Agindua : Lehenik entzun ezazu ongi irakasleak irakurtzen duen liburua. Gero galde hauei erantzun beharko diezu. Azkenik marrazki bat eginen duzu. |

# TXANOGORRITXU

Zer izen du neska horrek ?
Nora joaten da ?
Zer eramaten du otarrean ?
Nor ikusten du bidean ?

| **HIZKUNTZA – ULERMENA – Hitzen irakurketa/idazketa** |
|---|
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. |
| Agindua : Lehenik entzun ezazu ongi irakasleak irakurtzen duen liburua. Gero galde hauei erantzunen diezu behar den hitza inguratuz. |

| | | |
|---|---|---|
| **1- Zer izen du ipuineko neskak ?** | | |
| GORRITXU | TXANOBERDETXU | TXANOGORRITXU |
| **2- Noren ikustera joaten da ?** | | |
| TTANTTA | AMATXI | AITATXI |
| **3- Zer eramaten du otarrean ?** | | |
| GOXOKIA | OGIA | BIXKOTXA |
| **4- Nor zaio bidean agertzen ?** | | |
| OSTOA | OTSOA | OILOA |

Inguratu dituzun hitzak idatz itzazu.

________________________________________

________________________________________

________________________________________

| HIZKUNTZA – ULERMENA – Hitzen irakurketa/idazketa |
|---|
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. |
| Agindua : Lehenik entzun ezazu ongi irakasleak irakurtzen duen liburua. Gero galde hauei erantzunen diezu behar den hitza idatziz. |

*Txanogorritxu* ipuin hori, kolorezko lauki karratuez egina da.

**Lauki karratu bakoitza NOR edo ZER den idatz ezazu.**

Lauki karratu gorria : ....................................................................

Lauki karratu marroia : ................................................................

Lauki karratu urdin arina : ..........................................................

Lauki karratu beltza : ....................................................................

Lauki karratu arrosa : ...................................................................

Lauki karratu laranja : ..................................................................

Lauki karratu berdea : ...................................................................

Lauki karratu urdin iluna : ...........................................................

Lauki karratu horia : .....................................................................

Lauki karratu grisa : .....................................................................

**Zerrendan hauta :**

Ama, Txanogorritxu, Amatxi, otsoa, Amatxiren laguna, zuhaitza, bixkotxa, otarrea, Amatxiren etxea, zakarrontzia

| |
|---|
| **HIZKUNTZA – ULERMENA – Hitzen irakurketa/idazketa** |
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. |
| Araudia : Lehenik entzun ezazu ongi irakasleak irakurtzen duen liburua. Gero galde hauei erantzunen diezu behar den hitza idatziz. |

*Txanogorritxu* ipuin horretan, pertsonaia eta gauza guziak kolorezko lauki karratuez eginak dira !

Bakoitzaren ondoan idatz ezazu doakion kolorea.

Ama : …………………………………………

Txanogorritxu : ……………………………….

Amatxi : ……………………………………...

Otsoa : …………………………..…………..

Amatxiren laguna : ………………………….

Zuhaitzak : ……..…………………..……….

Bixkotxa : ……………………….………….

Otarrea : ……………………………………

Amatxiren etxea : ………………………….

Zakarrontzia : ……………………..……………..

## Koloreen zerrenda :

gorria, urdin arina, beltza, arrosa, horia, laranja, marroia, urdin iluna, grisa, berdea

| HIZKUNTZA – IDAZKETA – Hitzak asmatu |
|---|
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. Réécrire une phrase choisie dans le texte. |
| Agindua : Lehenik irakur ezazu ipuinaren zati hau.<br>Azpimarratuak diren hitzak alda itzazu, beste erranaldi baten sortzeko. |

**Bat-batean otsoa agertzen da :**

**"Egun on, neska pollita, nora zoaz ?"**

**« Banoa Amatxiren etxera. Amak egina duen txokolatezko bixkotxa eramaten diot » dio Txanogorritxuk.**

**1- Taldean sortua :**

Bat-batean ...................................................................... agertzen da :

"Egun on, .......................................................... pollita, nora zoaz ?"

« Banoa .................................................... etxera. ................................... egina duen txokolatezko

bixkotxa eramaten diot » dio ...............................................................

**2- Zuhaurek sortua :**

Bat-batean .......................................................................... agertzen da :

"Egun on, ............................................................... pollita, nora zoaz ?"

« Banoa .................................................. etxera. .................................... egina duen txokolatezko

bixkotxa eramaten diot » dio ..................................................................

| HIZKUNTZA – IDAZKETA – Hitzak asmatu |
|---|
| Objectif : Comprendre un conte lu par l'adulte. Réécrire une phrase choisie dans le texte. |
| Agindua : Lehenik irakur ezazu ipuinaren zati hau.<br>Azpimarratuak diren hitzak alda itzazu beste erranaldi baten sortzeko. |

Txanogorritxuri iduritzen zaio gaur Amatxi ez dela usaian bezalakoa.
Egia erran, pixka bat bitxia atzematen du.
Galdezka hasten da :

« Baina, Amatxi, zer begi handiak dituzun ! »

" Bai, hobeki ikusteko" dio besteak.

5- Taldean sortua :

...................................................... iduritzen zaio gaur ....................................................
ez dela usaian bezalakoa.

Egia erran, pixka bat bitxia atzematen du.

Galdezka hasten da :

« Baina, ..............................................., zer .................................................... dituzun ! »

"Bai, hobeki ................................................................" dio besteak.

6- Zuhaurek sortua osoki idatz ezazu.

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................